



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainak 23

Vitoria-Gasteiz, 23 de junio de 2020

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

IBILGAILU ELEKTRIKOA FABRIKATZEKO TEKNOLOGIEI ETA 4.0 FABRIKA MALGUARI BURUZKO IKERKETARAKO BIKAINASUN-ZENTRO BAT HARTUKO DU EAEK

- **Eusko Jaurlaritzak GESTAMPein lankidetzan jardungo du automobilgintzaren erronka nagusietako bati erantzuten dion zentro hori sortzeko**
- **Bikaintasun-zentroa Zornotzan kokatuko da eta 17 miloiko inbertsioa egiteko konpromisoa dakar, eta Eusko Jaurlaritzak 8 milioi euro arteko dirulaguntza onartu du horretarako**
- **Sektore osoan izango du inpaktua, lehiakortasuna hobetzea ekarriko du eta fabrikazio-prozesuan ikerketaren transferentzia bermatuko du**

Ibilgailu elektrikoa ikertzeko bikaintasun-zentroa eta 4.0 Fabrika Malguari hartuko ditu EAEk.

GESTAMP taldearen ekimena izango da eta Eusko Jaurlaritzak ekimen horretan parte hartuko du, EAEko automobilgintzaren sektoreak gaur egun duen erronka garrantzitsuenetako bat dela uste baitu.

Proiektuak 17 milioi euroko inbertsioa egiteko konpromisoa dakar, eta Gobernu Kontseiluak gaur onartu du GESTAMPi zortzi milioi eurorainoko zuzeneko dirulaguntza ematea. Ekarpen hori ez da izango, inola ere, kostu osoaren % 50etik gorakoa, eta GESTAMP sozietateari dagokio gainerako finantzaketa ekartzea proiektua guztiz abiarazi arte.

Inpaktua eta lehiakortasun-hobekuntza sektore osorako

Gaur onartutako lankidetzeta-hitzarmenari esker, industria-ikerketarako gune bat sortuko da, fabrikazio aurreratuan paradigma-aldaketa ekarriko duena, "fabrika"ren kontzeptu iraultzaile berri bat diseinatu, garatu eta baliozkotuko baita, erabat malgua eta konektatua.

Halaber, ibilgailu elektrikorako trantsizioaren aurrean automobilen egiturazko aldaketekin lotutako joerak ikertuko ditu zentroak. Zentroak ibilgailu elektriko berriaren egiturazko produktu eta osagai berriak ikertuko ditu, pisua murriztuz, CO₂ isuriak murrizteko klima-aldaketaren ondorioak arintzeko. Ibilgailu elektrikoak fabrikatzeko teknologietarako berariaz diseinatutako produktu berriak ere garatuko dira.

Industria-ikerketako etorkizuneko laborategiak aurrerapenak bilatuko ditu EAEko automobilgintza-sektorearen lehiakortasuna handitzeko. Gainera, euskal sektorearen balio-katea osatzen duten enpresa hornitzaileen ekosistemaren ekarpena izango du, baita EAEn ezarritako zentro teknologikoen parte-hartzea ere.

Eusko Jaurlaritzak interesekotzat jotzen du proiektuan parte hartzea, etorkizuneko laborategiak autoen fabrikatzaileen eta fabrikazio malguaren arloko hornitzaile nagusien beharrei erantzungo liekeelako, baita ibilgailu elektrikoarekin lotutako joera globalei ere.

GESTAMPEk EAEko automobilgintzarekin duen konpromisoa

GESTAMP taldea automobilgintzarako pieza estanpatu metalikoen arloko hornitzaile nagusietako bat da. Automobilerako osagai metalikoen diseinuan, garapenean eta fabrikazioan espezializatutako talde multinazionala da, eta EAEn ingurune ezin hobea du bere I+G+b jarduera garatzeko. Alde batetik, automobilgintzaren sektorea lehiakor eta berritzaileenetakoa da EAEn (2018an, EAEn ezarritako sektoreko enpresen salmentak Autonomia Erkidegoko BPGd-aren % 25 ziren), eta, bestetik, euskal erakundeek I+G+b-ren aldeko apustua egin dute.

GESTAMPEk aktiboki parte hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Automobilgintza Klusterrean (Ibilgailuetako Osagaien Industrien Euskadiko Kluster Taldea). Kluster horren xedea da sektoreko euskal enpresen lehiakortasuna hobetzea eta lankidetzaren bidez hura dinamizatzea, eta, horrela, erronkei erantzun bateratuak eman ahal izatea.

Horretarako, GESTAMPEk lan hauek egingo ditu:

- Behar eta erronka teknologikoak eta sektorialak zehaztea. Euskal Autonomia Erkidegoko eta nazioarteko automobilgintzaren sektorerako joera teknologiko eta sektorial garrantzitsuenak identifikatuko dira. Joera horien analisiaren emaitza gisa, sektorearentzako erronka handienak zehaztu behar dira.
- Ibilgailu Elektrikoak Fabrikatzeko Teknologiei buruzko Ikerketako Bikaintasun Zentroa eta 4.0 Fabrika Malguaren zehaztapan teknikoak finkatzea, identifikatutako erronkei emango dizkien erantzunak zehazteko. Automobilgintzaren sektorean etorkizun handiena duten teknologien bideragarritasuna aztertuko da.
- Bikaintasun Zentroak egoki funtziona dezan, ikerketarako gune fisikoak hautatzea eta egokitzea.
- Ikerketa-azpiegitura sortzea eta ekipoak abian jartzea: Ibilgailu Elektrikoak Fabrikatzeko Teknologiei buruzko Ikerketako Bikaintasun Zentroa eta 4.0 Fabrika Malguaren azpiegitura sortzea eta abian jartzea kudeatuko da. Helburua izango da. Bikaintasun Zentroa zehaztutako ikerketa industrialeko ildoak gauzatzeko behar diren baliabide teknologikoez hornitzea. Fase horretan zehar, ekipoak kotizatzeke, eskuratzeko eta instalatzeko prozesu guztiak koordinatuko dira, euskal enpresa-sarearen launtzarekin. Era berean, eskuratutako ekipoak prest jartzeko lan egingo da, haiek industria-ikerketako prozesuetan erabiltzeko.

GESTAMPEk I+Gko lankidetzeta-proiektuak egingo ditu beste enpresa eta zentro teknologiko batzuekin, batez ere euskaldunekin edo EAEn lantokiak dituztenekin.

Fabrikazio-prozesuetan aplikatzeko soluzioak

Ibilgailu Elektroko Fabrikatzeko Teknologiei buruzko Ikerketako Bikaintasun Zentroa eta 4.0 Fabrika Malgua funtsezko ikerketa-prozesuen eta prozesu industrialen arteko zubi gisa pentsatuta dago; ondoren, teknologia berriak ibilgailu elektrikoaren benetako produkzio-prozesuetan integratzeko behar den oinarria ezartzeko.

Planifikatutako ikerketa-ildoak TRL (ingelesezko siglak Heldutasun Maila Teknologikoa adierazteko) eskalako maila problematiko nagusiak landu eta garatzera bideratuta daude. Maila horietan, baliozkotze-probak behar dira ingurune adierazgarrietan, oso makina antzekoekin eta, batzuetan, berdinekin, benetako ekoizpen-inguruneen tamainari eta ezaugarriei dagokienez.

Hitzarmen hau datozen egunetan sinatuko dute, telematikoki, Ekonomiaren Garapenerako eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak eta Gestampeko presidente exekutibo Francisco J. Riberasek.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

IA 4 MILIOI EURO GEHIAGO ARDOGINTZAKO PRODUKTUAK KANPOAN SUSTATZEKO EKINTZETARAKO LAGUNTZETAN

- **Gaur egun bereziki garrantzitsuak dira, ardogintzaren sektorea oso une zailetik igarotzen ari baita Covid-19aren krisiaren ondorioz**
- **Eusko Jaurlaritza lanean ari da “Basque Wine” aterkinpean euskal upategietako produktuak posizionatzen utziko diguten ekintzak eginez sustapen kanalak indartzeko**

Gobernu Kontseiluaren azken bileran, ardogintzaren produktuak hirugarren herrialdeetan ezagutarazteko eta sustatzeko 2020ko maiatzaren 1etik 2021eko apirilaren 30era arte egingo diren programa eta ekintzetarako laguntzak iragartzen zituen agindua aldatzea onartu du Eusko Jaurlaritzak, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturretako sailburu Arantxa Tapiak proposatuta. Laguntza horiek 8,5 milioi eurokoak ziren, eta orain 12,3 milioikoak izango dira, FEAGA fondo europarraren ekarpena handitu delako.

2016tik, guztira 139 enpresa baliatu dira laguntza horietaz. Egin diren inbertsioak 68,2 milioi eurokoak baino handiagoak izan dira, eta kopuru horretatik 32,3 milioi inguru dirulaguntzak izan dira.

Helburua da ardoa gure mugetatik haratago sustatzea eta sektorean inbertsioak egiten laguntzea, merkatuaren eskarrietara hobeto egokitzeko eta Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorean eta, beraz, Euskadiko ekonomian ere zati nagusi diren enpresa hauen lehiakortasuna eta etekin globala areagotzeko.

Sektorea babesteko tresnak

Ardoaren sektorea egoera zailean dago, ia hiru hilabetez nazioarteko eskaerak behera egin duelako eta HORECA kanala erabat gelditu delako. Egoera horren aurrean, Tapiak sailburuak lankidetzara areagotu behar dela eta sektoreari laguntzeko neurriak uneko premietara egokitu behar direla jakinarazi dio sektoreari, berriki egindako bilera batean.

Zentzu horretan, administrazioak eta sektoreak erabaki dute finantza tresnak indartzea, bai eta sustapen kanalak ere, Basque Wine aterkinpean euskal upategietako produktuak salmenta eta posizionamendu kanal berrien bitartez posizionatzen utziko diguten ekintzak eginez, eratu berri den Basque Wine Officerekin koordinatuta eta haren finantzaketarekin.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

ZENBATEKO HANDIAGOA ETA URTE AMAIERARA ARTEKO EPEA, INDUSTRIA-SEKTOREKO ETE-ETAN ETA ENPRESA HANDIETAN EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO JARDUKETETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO

- **2019ko uztailaren 30eko Agindua aldatu da, zenbatekoa handitzeko, bai enpresa onuradun bakoitzeko, bai aurkeztutako eskabide bakoitzeko**
- **Laguntzen helburua da karbono dioxidoaren emisioak eta azken energia-kontsumoa murrizteko jarduketetarako pizgarriak ematea eta horiek sustatzea**

Gobernu Kontseiluak Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren Agindua onartu du. Agindu horrek, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak proposatuta, aldatu egiten ditu EAEko industria-sektoreko ETE-etan eta enpresa handietan efizientzia energetikoko jarduketak egiteko laguntzen deialdiaren oinarriak.

Gaur onartutako Aginduak aldatu egiten du 2019ko uztailaren 30eko Agindua, 2019ko eta 2020ko deialdiaren oinarriak onartu zituena. Aldaketak ez dakar aldakuntzarik bideratutako guztizko kopuruan —15.000.000 eurokoa izaten jarraitzen du—, baina laguntzaren gehieneko zenbatekoa handitu egiten du, bai onuradun bakoitzeko, bai aurkeztutako eskabide bakoitzeko. Eusko Jaurlaritzak espero du aldaketa bikoitz horrek, parte-hartzea sustatzean duenez, lagundu egingo duela lortu nahi diren helburu energetikoak hobeto betetzen.

Idazketa berriaren arabera, *“Onuradun bakoitzak jasoko duen laguntzak ezingo du gainditi, aurkeztutako eskabideen multzoarengatik, **2.000.000 euroko guztizko zenbatekoa**”* (aurreko oinarrietan, kopuru hori 1.000.000 eurokoa zen). Gainera, eskabide bakoitzaren gehieneko zenbatekoa ere aldatzen da, eta honela geratzen da: c) *Eskabide bakoitzerako, eta jarduketa-tipologiaren arabera, gehieneko laguntza-zenbatekoa **2.000.000 eurokoa** izango da 1. tipologiarako (“Tecnologia hobetzea ekipo eta prozesu industrialetan”) eta 30.000 eurokoa, berriz, 2. tipologiako jarduketetarako (“Energia-kontsumitzaile handiak ez diren enpresetan kudeaketa energetikoa gauzatzeko sistemak ezartzea”).* Lehen, kopurua 1.000.000 euro zen.

Eskabideak aurkezteko epe berria

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko irailaren 30ean hasi zen, eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da. Deialdia hasi zenetik 8 hilabete igaro direnez, 70 eskabide aurkeztu dira, eta, zenbatespenen arabera, 3.986.152.90 euro eman dira. Parte-hartze maila txikia dela eta —ziurrenik alarma-egoerak eraginda—, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak deialdiaren oinarriak aldatu ditu, eragile berriek parte hartu ahal izan dezaten eta industria-enpresetan efizientzia

eta aurrezpen energetikoa areagotzearekin lotutako konpromisoak bete daitezen sustatzeko.

Gaur onartutako Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera, interesdunek hamar egun izango dituzte dagoeneko aurkeztutako eskabideak eskatzeko edo berriz formulatzeko —eskabideak ezarritako zenbateko berrietara berregokitu ditzaten—.Horretarako, Euskadi.eus egoitza elektronikoan sartu beharko dute: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>, gaztelaniaz, eta <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>, euskaraz.

Baldin eta eskabideak birformulatzeak eskatu diren zenbatekoei eta birformulatze horren ondoriozko elementuei soilik eragiten badie, lehenengo eskaera behar bezala bete duten unea hartuko da kontuan ebazpena emateko.

Aldaketa honekin ezarritako mugak aplikatzeak ez dio inola ere kalterik egingo aldaketa honek ondorioak sortu baino lehen dirulaguntza eskatu duen eskatzaileari. Hortaz, baliabideak esleitzean, hasieran ezarritako esparruaren arabera legokiokeenaren pareko kopurua bermatuko zaio, gutxienez. Horren ondoren, soilik, berraztertu ahal izango da muga berriak eskatzaile guztiei aplikatzea.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK BAIMENA EMAN DU LANBIDEK HEZKUNTZARI LANGILE LANGABE ETA OKUPATUEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAZIORAKO AGINDUA EGITEKO

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak baimena eman du Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeaketa-agindua egiteko Hezkuntza Sailari, 30,3 milioi euroan.

Lanbidek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzako lanbide-heziketako ikastetxe publikoen, Hezkuntza Sailari atxikita dauden zentroen eta beste zeharkako prestakuntza kualifikatzaile baten inguruko zentroen sarean zehazki profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzen programazioa sustatzen du, kudeaketa-aginduaren bidez, Euskadiko langile okupatuen eta langabeen trebakuntza-beharrei erantzuteko, eta eskura dauden baliabide publikoen erabilera eraginkorra izateko eta haiek optimizatzeko.

Prestakuntza-eskaintza horren helburu bikoitza honako hau da: batetik, EAEko langabe eta okupatuen trebakuntza-beharrei erantzutea, eta, bestetik, baliabide publikoen erabilera optimizatzea.

Kudeaketa-agindu horretara 30.287.600 euro bideratu dira. Haietatik, 21.203.600 euro langile langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetara bideratuko dira, eta 9.084.000 euro, nagusiki langile okupatuei zuzendutakoetara.

Bizi dugun ekonomia- eta lan-testuinguruan, prestakuntza aldetik dauden gabeziek kuantifika daitekeen inpaktu negatiboa dute langileen enplegu-aukeretan. Enplegurako lanbide-prestakuntzak eragin erabakigarria du haretan, eta langileei eskaini dakiekeen zerbitzu nagusietako bat dela ulertzen da, haien enplegarritasuna sustatzeko eta, hala, lanbide zehatz bat garatzera bideratzen den trebakuntza hobetzeko eta, horretarako, lanbide-arlo jakin bateko ezagutzan eragina izateko.

2020-2023

Kudeaketa-agindu horren helburua da, 2020-2023 ekitaldian, Hezkuntza Sailaren titulartasunekoak diren prestakuntza-zentroek honako hauek ematea:

- Langile langabeei zuzendutako prestakuntza-planak.
- Nagusiki langile okupatuei zuzendutako prestakuntza-planak.

Hezkuntza Sailak eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak 2020-23 aldirako Lanbide Heziketako zentro publiko bakoitzerako aurrekontu-esleipen bat egin dute, honako irizpide hauek oinarri hartuta: edukiera, aurreko aginduaren betearazpen-maila eta zentro publikoek lanbide-heziketaren eremuan eta

enplegu-politika aktiboen arloan garatu dituzten aurreko jarduketan kalitate-, emaitza- eta inpaktu-adierazleak. 55 prestakuntza-zentrok dute esleipena: 9k Araban, 23k Bizkaian eta 22k Gipuzkoan, eta Euskadin oro har diharduen teleprestakuntzako bat.

2018-2020 aldian, 1.308 prestakuntza-ekintza onetsi ziren.

2018-20 AGINDUAN JASO DEN PRESTAKUNTZA-EKINTZA KOPURUA			
EKITALDIA	LANGILE LANGABEAK	LANGILE OKUPATUAK	GUZTIRA
2018	180	480	660
2019	176	472	648
GUZTIRA	356	952	1.308

Enplegua eta Gizarte Politikak

LANBIDEK 3,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LANGILEEN GAITASUNAK ETA TREBAKUNTZAK HOBETZERA BIDERATUTAKO ENPRESEN PRESTAKUNTZA-EKINTZAK FINANTZATZERA

- **Aurreko deialdia urtebetez luzatu da, COVID-19aren ondorioz**

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluari Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak hartutako akordioaren berri eman dio; haren bidez, 2020rako deialdia onetsi da, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatuko dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak egiteko dirulaguntzei buruzkoa.

Lanbidek 3,2 milioi euro bideratuko ditu langileen gaitasunak eta trebakuntzak hobetzera bideratutako enpresen prestakuntza ekintza programatuak finantzatzera. Honako jarduketa hauek jaso dezakete dirulaguntza: enpresaren proiektuarekin lotura zuzena duten ekintza estrategikoak jaso dituzten prestakuntza-planak; ekintza horiek beharren diagnostiko bat edo antzeko dokumentu bat izan dezakete oinarri, ekintza horiek eta hartzaile dituzten langileak lehentasunezkoak direla adierazten dutenak. Nobedade gisa, deialdi honen kudeaketa ez du Hobetuz - Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak egingo, baizik eta Lanbidek zuzenean, erabateko integrazioaren ondoren.

“Funtsezko tresna da bizi osoko prestakuntza bermatzeko”, esan du Artolazabalek, eta helburua da langileak eta enpresak errealitate berrietara egokitzea, eta ekoizpen-prozesuen aldaketetan langileek duten lanbide-gaikuntzari eustea.

Langileei lan-bizitzan beharrezko izan dezaketen trebakuntza emateaz gainera, prestakuntza lehentasunezko balio estrategikoa da aldaketa teknologikoko, ekonomikoko eta sozialeko prozesuetan eta, hori dela eta, enpleguan eta gizarte-kohesioan egonkortasunerako tresna. Are gehiago une hauetan, covid-19aren krisialdiaren ondoriozko nahasmendu ekonomiko eta sozial masiboak EAEko enpresa eta herritar aktibo gehienetan duen eta epe laburrean eta ertainean eragina izango duen une hauetan. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua, enpresak eta jarduera ekonomikoa leheneratzen lagundu nahi du, bere eskumenen barruan.

Covid-19aren ondorioak

Zehazki, pandemiaren ondorioak eremu honetara ere iritsi dira; izan ere, 2019-2020 ekitaldirako aurreikusitako ekintzak urtebetez luzatu edo atzeratu dira. Hasieran aurtengo ekainaren 30ean amaitzea aurreikusten zen, baina erabaki da beste urtebetez luzatu ahal izatea, 2021eko ekainaren 30era arte. Deialdi honetan, 2019koan, 238 enpresa-plan onetsi ziren.

2020-2021 ekitaldiari begira, enpresa parte-hartzaile kopurua txikiagoa izatea aurreikusten da. Lanbidek uste du pandemiaren eraginak enpresa interesdunen kopurua baldintzatuko duela; izan ere, haiek ekoizpenean edo beren zerbitzuak ematean zentratuko dira.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK 290.000 EURO BIDERATUKO DITU TOKI EREMUKO GAZTE EKIPAMENDUEN SAREA SUSTATZERA

Eusko Jaurlaritzak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, 2020. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-ekipamenduen sarea toki-eremuan sustatzeko diru-laguntzak ematea arautzeko eta deitzeko agindua onetsi du. Guztira, 290.000 euro bideratuko dira toki-eremuan gazte-ekipamenduak eraiki, handitu edo hobetzeko laguntzetara.

Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetara bideratuko dira.

2019an dirulaguntza hauek jaso zituzten udalerrriak hauek izan ziren: Anoeta, Arraia-Maeztu, Asparrena, Campezo/Kanpezu, Idiazabal, Izurtza, Labastida/Bastida, Lekeitio, Markina-Xemein, Oresa, Ribera Baja/Erribera Beitia, Agurain/Salvatierra, Segura eta Zarautz.

Enplegua eta Gizarte Politikak

LANBIDEK ZALLAKO BULEGOA JOSÉ ETXEZARRAGA KALERA ERAMANGO DU; BI LOKAL EROSI DITU BERTAN

- **Bulego berri horren bidez, hobetu egingo dira eskaintzen duen zerbitzua eta, batik bat, irisgarritasuna**
- **Bulegoa 15 edo 18 hil barru egongo da abian**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Zallako José Etxezarraga kaleko 1b zenbakian dauden bi lokal erosteko baimena eman du; lokalak elkarren ondoan daude, eta 354 metro koadro inguruko azalera erabilgarria dute biek batera. Bertan, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulego berria egongo da. Bulego hori egungoaren ordezkari izango da eta, horrela, zerbitzu hobea eman ahalko die herritarrei eta, ondorioz, irisgarritasuna hobetu. Erosketa 290.000 eurokoa izango da.

Zallako gaur egungo bulegoa Euskadi plazako 1 zenbakian dago, lehengo udaletxearen eraikinean; 90 metro koadroko azalera erabilgarria du beheko solairuan eta 188 metro koadrokoa, lehen solairuan. Lokal hori doan laga zuen Zallako Udalak, 1993an, enplegu-bulego izateko. Eraikinaren ezaugarriak eta bulegoaren konfigurazioak berak muga garrantzitsuak dakartzate, batetik, espazio aldetik, eta, bestetik, goiko solairura igotzeko irisgarritasunaren aldetik; izan ere, lokaletik kanpo dagoen eta udal-liburutegiarekin partekatzen den igogailua erabili behar da horretarako.

Higiezin horren mugak direla eta, udalerrian beste bulego bat bilatu behar da, Euskal Enplegu Zerbitzua egoki emateko beharrezkoak diren estandarrak betetzen dituen. Horretarako, Lanbidek zenbait higiezin aztertu ditu, eta, haietatik, José Etxezarraga kalean dauden lokalak aukerarik onena direla uste du, espazioa, kokapena eta irisgarritasuna –kalean bertan– aintzat hartuta. Orain, Lanbidek proiektua abian jarriko du, eta bulego berria 15 eta 18 hil bitarteko epean erabilgarri eta aktibo egotea aurreikusten da.

Enkarterriko bulegoa

Zallako bulegoak honako udalerrri hauetako herritarrei eskaintzen die zerbitzua: Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zalla. Alegia, 32.000 pertsona baino gehiagori. Lanbiden jasotzen denez, eskualdean 2.428 langabe zeuden erregistratuta, pasa den maiatzean.

Bulego berrietara Lanbideko 10 langileak mugituko dira, gehi egoitza horretatik lanean diharduten SEPEko (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) lau langileak, bai eta bertan lan egiten duten segurtasun-langileak ere.

Borja Belandia Lanbideko zuzendari nagusiak esan duenez, “bulego berri horren bidez, zentro berria egongo da, eta horrek herritarrek eta enpresek kudeaketak

egin ahal izateko baliabideak eskainiko ditu, Internetera sartzeko aukera ematen duten baliabideak eskainiko ditu, bai eta prestakuntza-saioak eta beste interakzio batzuk erosoago egiteko aukera ere. Hobekuntzarik handienak honako hauek izango dira: laneko, espazioko, ekipamenduko eta irisgarritasuneko baldintzak; haiek langileengan eta, oro har, jendearengan izango dute eragina”.

Zallako bulegoak honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

Enplegu-eskatzaileri:

- Enplegu-eskarirako izen-ematea. Eguneratzeak eta aldaketak.
- Lanbide-orientazioa.
- Enplegurako prestakuntza.
- Autoenplegua. Ekintzaileak.
- SEPEk eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren aurkezpena eta kudeaketa
- Etxebizitzaren prestazio osagarriaren aurkezpena eta kudeaketa

Enpresei:

- Lan-bitartekaritza: enplegu-eskaintzen erregistroa eta kudeaketa
- Kontratazioko, dirulaguntzako eta laguntzako modalitateei buruzko informazioa eta aholkularitza.
- Lan-kontratuen erregistroa.
- Contrata aplikaziora sartzeko baimena emateko dokumentazioaren bilketa, egiaztapena eta baimena.
- Langile baten prestakuntza-kontratu etako denboraren egiaztapena (praktikak eta prestakuntza).

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

ETXEBIZITZA SAILAK 66 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ALOKAIRUA ETA BIRGAITZEA BABESTEKO PROGRAMETARA 2020AN

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak 66.100.000 euro bideratuko ditu 2020an etxebizitzak birgaitzeko eta gizarte- alokairurako laguntza-programak finantzatzeko. Hala jaso da Gobernu Kontseiluari jakinarazi zaion Iñaki Arriola sailburuaren Aginduan. Horren bitartez, etxebizitzen eta eraikinen alokairua eta birgaitzea sustatzeko 2020ko ekitaldi honetan emango dituzten urte anitzeko dirulaguntzen ildoak finantzatzeko dituzten ordainketa- eta konpromiso-kredituak eman dira ezagutzera.

Gobernu Kontseiluaren bileran, honako programa hauek aurrekontuz hornitzeko baimena ere eman dute:

- Egiturazko eraberritzeak (estalkiak eta fatxadak), irisgarritasuna (igogailuak instalatzea, batez ere) eta energia-efizientzia egikartzeko bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea sustatzeko, 20,4 milioi euro esleituko dituzte dirulaguntzetan. Horietatik 6,4 milioi euro aurtengo ekitaldian ordainduko dituzte eta 14 milioi euro 2021ean. Dirulaguntza horiei esker, inbertsio pribatuen bidez 400 milioi euro baino gehiago (funtsean, jabeen erkidegoen kontura) mugituko direla kalkulatu da.
- Merkatu librean etxebizitza-alokairua ordaintzeko gazteentzako Gaztelagun laguntzen programak 2020an eman diren eta laguntza indarrean egongo den 3 urteetan —epe horretan baldintzak aldatzen ez badira— ordaindu beharko diren dirulaguntzen 19,3 milioi euro bereganatuko ditu.
- Errentamendu babestua sustatzeko 12 milioi euro bideratuko dira. Diru hori batez ere erabiliko dute sustapen berriko operazioak bultzatzeko, edo sustatzaile publikoek eta pribatuek arrazoizko alokairuaren bidez etxebizitzak sustatzeko —erosi ondoren etxebizitza zaharrak birgaituz—, edo zuzkidura-bizitokiak sustatzeko. Erabilera lagatzeko kooperatibek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek *cohousing* edo elkarlaneko etxebizitzen ekimenak sustatzeko politika berria laguntza publiko garrantzitsuekin hastea ere espero da.
- Sustatzaile publikoei eta pribatuei, jabeen erkidegoei eta etxeei, eta erabilera lagatzeko kooperatibei eta irabazi-asmorik gabeko elkartei finantza-erakundeek emango dizkieten kredituen interes-puntuak diruz laguntzeko, guztira, 14,1 milioi euro esleituko dira. Era horretan, 2020 Finantza Hitzarmenaren eta 2020-2023 birgaitzeko finantza-tresna bereziaren bitartez, alokairu babestuko etxebizitzak eta hauen birgaitzea (aurretiatzeko egitura-birgaitze bidez etxebizitza hutsaren mobilizazioa eta eskuragarritasuna) sustatzeko.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 930.000 EURO BIDERATU DITU BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK BURUTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak burutzeko dirulaguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 930.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdi honek bizialdi osoko ikaskuntzako hiru jarduera mota laguntzen ditu diruz. Jarduera horiek ezagutzaren edozein arlotakoak izan daitezke, betiere helduen ezagutza, konpetentzia eta gaitasun-maila zabaltzeko eta herritartasun aktiboa sustatzeko helburuz:

- Prestakuntza-jarduera espezifikoak, pertsona talde jakin baten prestakuntza-beharrei erantzuteko diseinatu eta planifikatutakoak (175.000 €).
- Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak (595.000 €).
- Prestakuntzako edo hezkuntzako metodologia berrien esperimentazioari buruzko proiektuak; ezagutzaren belaunaldi arteko transferentziari buruzkoak, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzeari buruzkoak, edota bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako beste edozein (160.000 €).

Onartuak gertatzen diren proiektuek, eta ondorioz deialdi honen bidezko finantzazioa eskuratzen dutenek, 2020an zehar hasi beharko dute, eta datorren urteko uztailaren amaiera bitartean garatu ahal izango dira. Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke: Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuak; udalak; tokiko edo eskualdeko garapen agentziak; euren helburu sozialen artean formazioa duten udal-elkargoak; Euskadin egoitza duten unibertsitateak; bizialdi osoko ikaskuntzaren arloan jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak; eta euren helburuen artean formazioa duten merkataritza-elkarteak edo ekonomia sozialeko elkarteak.

Bizialdi osoko ikaskuntzaren esparruko jardueren eskaintza zabal eta eguneratua izateak aukera ematen die herritarrei ezagutzak lantzeko eta zabaltzeko. Baina horrez gain, baita ezagutzak eguneratzeko eta gaitasun profesionalak hobetzeko ere. Era horretan, enplegarritasuna hobetzeko eta ongizate sozial zein ekonomikoan aurrera giteko bideak ere zabaltzen zaizkio gizarteari.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK ONARTU DU EITBREN ZERBITZUAK NAFARROAN HEDATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA BAIMENTZEA

- **Akordioaren helburua da beste urtebetez luzatzea bi gobernuek 2016ko uztailan sinatu eta azken lau urteetan indarrean egon den hitzarmena**

Eusko Jaurlaritzak onartu du, bere Gaurko Gobernu Kontseiluan, EiTbren zerbitzuak Nafarroan hedatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko lankidetzaren hitzarmena luzatzeko baimena ematea. Akordioaren helburua da bi gobernuek 2016ko uztailan sinatutako eta azken lau urteetan indarrean egon den hitzarmena beste urtebetez luzatzea eta, aldi berean, 2024ra arte isilbidez luzatu ahal izatea aurreikusi dute. Gaur baimendutako luzapenak ez du aldaketarik ekarriko orain arte indarrean egon den hitzarmenaren aldean, eta EiTbren telebista eta irrati kateen emisioekin Nafarroan jarraitzea bermatzen du.

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen erabaki-proposamenak baimena ematen dio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean luzapen-hitzarmen hau onartzeko eta sinatzeko. Gaur onartutako baimenaren eta izapide administratiboaren ostean, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Javier Rémirez Nafarroako Gobernuako Lehendakaria, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne kontseilariak sinatu beharko dute testua.

Gaur onartutako testuak jasotzen duenez, “Nafarroako Foru Erkidegoak eta Euskal Autonomia Erkidegoak harreman berezia dute, kidetasun historiko, kultural, linguistiko, turistiko eta soziokulturala ezaugarri duena”, eta elkarlanerako tradizio luzea dute, kultura- eta hizkuntza-izaerako erakundeen sorreran eta garapenean elkarrekin parte hartzea eraman dituen, bai eta hainbat arlotan sektoreko akordioak izenpetzera ere.

Era berean, gogorarazten du ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 40.4 artikulua ezartzen duela, “autonomia erkidego bateko lurreko uhin hertzien bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa autonomia-erkidego mugakide batean eta hizkuntza- eta kultura-kidetasunak dituen beste batean emititzea zilegi dela”, baina horretarako hitzarmen bidez hala erabaki beharko dela, eta elkarrekotasuna egon beharko dela.

Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak lankidetzaren protokolo orokor bat dute sinatua, Gasteizen 2016ko maiatzaren 10ean sinatua. Protokolo horrek 2009ko uztailaren 3an sinatutako aurreko protokoloan jasotako aurreikuspenak garatu eta berritzen ditu. Protokolo horren bidez, bi gobernuek

konpromisoa hartzen dute, ikus-entzunezko komunikazioaren arloan, EiTBen zerbitzuak Foru Erkidegoan zabaldu ahal izateko beharrezko kudeaketak egiteko.

2016ko Lankidetzaren Protokolo Orokorra garatze aldera, urte bereko uztailean lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzu publikoen arloan lankidetzaren esparru bat ezartzeko. Hitzarmen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak EiTBen zerbitzuen emisioa gaitzeko hainbat neurri hartzeko konpromisoa hartu zuten, bai LTD bidezko telebistakoa, bai kable bidezkoa. Irrati FM eta/edo DAB gisa Nafarroan, Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorren 40.4 artikuluan xedatutakoaren babesean hartu zuten konpromisoa. 2016ko uztailearen 15ean sinatutako hitzarmenak berak lau urteko indarraldia ezartzen du, baina bederatzigarren klausulan jasotzen denez, amaitu aurreko edozein unetan, sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute gehienez beste lau urtez luzatzea.

Horrela, behin dagokion izapidea gaindituta, akordio berria Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuaren sailburuek sinatuko dute urtebeteko luzapena, isilbidez 2024ra arte luza daitekeena.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 2.260.000 EURO BIDERATUKO DITU AURTEN IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA BULTZATZERA

- **laz, 24 ikus-entzunezko proiekturi eman zitzaien babes ekonomikoa diru-laguntza lerro honen bidez**

Eusko Jaurlaritzak 2.260.000 euro bideratuko ditu aurten ikus-entzunezko ekoizpena bultzatzera, gaur onartu duen diru-laguntza deialdiaren bidez. Gobernu Kontseiluak bere gaurko bileran onartu du deialdi hau, eta iaz bezala lau modalitate izango ditu. Pasa den urtean 24 ikus-entzunezko proiekturi eman zitzaien babesa ekonomikoa laguntza hauen bidez.

Deialdi hau ikus-entzunezkoak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak duen lerro nagusietako bat da. Honakoak dira deialdiak jasotako lau modalitateak:

- Fikziozko film luzeak.
- Aurrekontu txikiko fikziozko film luzeak.
- Sorkuntzako dokumentalak.
- Film laburren ekoizpena.

laz, lehenengo modalitatearen bidez 1.606.824 euro banatu ziren, eta ikus-entzunezko bost proiektu babestu ziren, 269.194 eta 350.000 euro bitarteko laguntzak eskainiz. *Todas las lunas/Ilargi guztiak* (Ilargi Films); *Irati* (Ikusgarria Films); eta *Nora* (Gariza Produzioak) deialdi honen bitartez babestu ziren proiektuen artean daude.

Bigarren modalitatea, Aurrekontu txikiko fikziozko film luzei zuzenduta dago, eta 209.976 eurokoa aurrekontua izan zuen iaz. Modalitate honen bitartez bi diru-laguntza eskaini ziren, *Retrato de mujer blanca con pelo cano y arrugas* eta *Deviant* lanentzat (biak Amania Films-enak dira). Hirugarrenik, 2019. urtean 282.200 euro bideratu ziren 'Sorkuntzako dokumentalak' izeneko modalitatera, eta 24.000 eta 60.000 euro bitarteko 6 diru-laguntza eman ziren. Honako hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuetako batzuk: *Arzak since 1897*; (Bainet Teknika); *El viaje más largo* (Dibulitoon); eta *Itoiz* (Doxa Producciones).

Azkenik, film laburren modalitateetan 5.835 eta 20.000 euro bitarteko 11 diru-laguntza eman ziren (modalitate honek 160.000 euroko aurrekontua du). *Puzzleak* (Komiki Films); *Heltzeak* (Irusoin) eta *Polvo Somos* (Sirimiri Films) izan ziren diruz lagundutako zenbait proiektu.

Laguntza-lerro honez gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak proiektuak garatzera bideratutako deialdi bat du. Horren helburua da garatzen diren ekoizpenen prestakuntza eta diseinua bultzatzea, ekoizpen-fasearen aurretik egindako lanei erreparatuz. Deialdi horretara 300.000 euro

bideratzen dira urtero. Halaber, kultura-sorkuntzarako laguntzen deialdiak zinema-gidoiak sortzeko modalitate bat du, eta 104.000 euro bideratzen dira horretara urtero. Horrela, hiru lerro horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 2.634.000 euro bideratzen ditu urtero ikus-entzunezkoa bultzatzera diru-laguntza irekien bidez.

Ikus-entzunezkora bideratutako diru-laguntzak nabarmen hazi dira legealdia hasi denetik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diru-laguntzen aurrekontua % 35 igotzea erabaki baitzuen. Hiru laguntza-lerro horiez gain, EiTbk 5 milioi inguru bideratzen ditu urtero zinemagintza eta, oro har, Euskadiko ikus-entzunezkoak bultzatzera. Azkenik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak baditu euskal ikus-entzunezkoa indartzea helburua duten bestelako proiektuak, hala nola, Noka Mentoring edo Kimuak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 560.000 EURO ONARTU DITU SORKUNTZA LANTEGIEN JARDUERA BULTZATZEKO

- **Sorgune izeneko deialdi honen bidez, iaz sei kultur guneren jarduera diruz lagundu zen**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 560.000 euroko partida bat onartu du sorkuntza lantegiak bultzatzeko, sorgune izeneko laguntza deialdiaren bidez. Laguntza-lerro honen helburua da sorkuntza-praktikak bultzatzen dituzten kultura-gune independenteen programak babestea. Iaz sei proiektu diruz lagundu ziren deialdi honen bidez.

Sorguneei zuzendutako deialdiaren helburua beren sormen-lana garatzen laguntzea da, "arte-adierazpenen berrikuntza, talentuaren babesa, kudeaketa parte-hartzailea eta tokiko ingurunearekiko harremana bideratuz". Jarduera-proiektu horiek kultura- edo sormen-sektorearen batean kokatuta egon beharko dute (ikusizko arteak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, literatura, musika, antzerkia...). Hautatutako proiektu bakoitzari gehienez 120.000 euro emango zaizkio, eta gehienez ere aurrekontuaren % 70.

Iaz, sei sormen-gune babestu ziren laguntza-deialdi honen bidez, 51.983 eta 120.000 euro bitarteko laguntzekin. Honako hauek izan ziren laguntzak jaso zituzten kultura-guneak: Wikitoki Elkartearen laborategia, Bulegoa z/b, Arropaineko Arragua, baratza, Fab Lab Bilbao eta Haztegia.

Sorkuntza-lantegietarako deialdi horrez gain, Eusko Jaurlaritzak urtero Bitartez deialdia jartzen du martxan, iaz 500.000 euroko aurrekontua izan zuena. Bitartez deialdiaren helburua da talentuaren sustapena bultzatzea, "harreman- eta bitartekaritza-bide berriak sortzea hainbat publikorekin harremanetan jartzeko, elkarrekin sortzea eta hibridazioa bultzatzea, sormen-potentziala bultzatzeko edo kultur jardunbideetatik kultura eta gizartea berritzeko estrategiak planteatzen dituzten ekimenak garatzeko".

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 440.000 EUROKO DEIALDIA ONARTU DU NAZIOARTEKO KIROL PROBETAN ETA EMAKUMEEN LIGETAN PARTE HARTU AHAL IZATEA LAGUNTZEKO

- **laz, guztira, 27 kirol-erakundek jaso zuten diru-laguntzaren bat deialdi honek dituen bi modalitateen bidez**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 440.000 euroko partida onartu du, bere gaurko saioan, goi-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzea helburu duten kirol-klub, kirol-elkarte eta izaera juridikoa duten erakundeei zuzenduta. Deialdi honek nazioarteko kirol-proba ofizialetan kategoría absolutuan parte hartzeko diru-laguntzak emateko lerro bat du (bai emakumezkoen zein gizonezkoen probetan), baita bigarren modalitate bat ere, emakumeen taldeek estatuko ligetan parte har dezaten laguntzeko. laz, guztira, 27 kirol-erakundek jaso zuten diru-laguntzaren bat deialdi honen bidez.

Lehen modalitateak 290.000 euroko aurrekontua izango du, eta emakumezkoen liga estataletan parte hartu ahal izatea laguntzeko modalitateak 150.000 euroko aurrekontua izango du. Deialdian jaso denez, deialdi honetara aurkeztu nahi duten klubek, kirol-elkarteek edo erakundeek honako irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Nazioarteko Federazio, Europako Federazio edo nazioarteko Liga Profesional bateko egutegi ofizialean sartuta egon behar dute.
- Lehenengo modalitateari dagokionez, Estatu- edo erkidego-mailako lehiaketak ez dira aintzat hartuko.
- Bigarren modalitatearen kasuan, Estatu-mailako emakumeen ligak dira dagokion federazioaren edo liga profesionalaren egutegi ofizialean sartuta dauden goi-mailako horiek, kategoría absolutuan.

lazko deialdiak 24 diru-laguntza eman zituen lehenengo modalitatearen bidez, gizonezkoen zein emakumezkoen nazioarteko lehiaketetan parte hartuko zuten kirol-erakundeentzat. Bidasoa Kirol Elkartea (eskubaloia), Gaztedi (sokatira), Landu Durango (txirringitaritza), Txuri Berri (curling) eta Zarauzko Surf Elkartea (surf) izan ziren laguntzak jaso zituzten klubetako batzuk. Halaber, hiru klubek jaso zituzten diru-laguntzak emakumezkoen liga estataletan parte hartzeagatik: Real Sociedad, Ibaeta Saski Baloi Taldeak eta Gernika Saski Baloi taldeak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK DIRU-LAGUNTZA DEIALDI BERRI BAT JARRI DU ABIAN, EUSKAL KULTURA-ONDAREA OSATZEN DUTEN KULTURA-ONDASUNAK KATALOGATZEN ETA DIGITALIZATZEN LAGUNTZEKO

- **350.000 euroko aurrekontuarekin, argazkiak, ikus-entzunezko materiala, kartelak edo dokumentu-funtsak katalogatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak emango dira**

Eusko Jaurlaritzak onartu du, bere gaurko Gobernu Kontseiluan, euskal kultura-ondarea osatzen duten kultura-ondasunak katalogatzeko eta digitalizatzeko laguntza deialdi berri bati. Laguntza-lerro berri honen bidez, argazkiak, grabatuak, marrazkiak, ikus-entzunezko materiala, mapak, planoak, kartelak, prentsa edo funts dokumentalak eta bibliografikoak katalogatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak emango dira. Laguntza-lerro berri horrek 350.000 euroko aurrekontua izango du.

Diru-laguntza deialdi honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak berresten du euskal kultura-ondarea digitalizatzeko eta hedatzeko bere apustua. Laguntza-lerro berriak hiru modalitate izango ditu:

- **Katalogazioa:** Ondasunak digitalizatuta badaude, baina agindua argitaratzen den egunean erregistro katalogafikorik ez badute. Digitalizazioak ezarritako baldintza teknikoak bete beharko ditu.
- **Digitalizazioa:** Ondasunak digitalizatuta ez badaude, baina agindua argitaratzen den egunean erregistro katalogafiko bat badute.
- **Katalogazioa eta digitalizazioa:** Ondasunek erregistro katalogafikorik ez dutenean eta Agindua argitaratzen den egunean digitalizatuta ez daudenean.

Katalogatutako edo digitalizatutako kultura-ondasunen emaitza gero gehitu ahal izango da bilgailu hauetan: Euskariana eta Europeana, Europako Kultura Ondarearen online ataria. Diru-laguntza deialdi hau zuzenduta dago euskal kultura-ondarea osatzen duten elementuen titularrak diren pertsona fisikoei eta erakunde publiko zein pribatuei, kokapen geografikoa edozein dela ere. Pertsona edo erakunde onuradun bakoitzak bi programa aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

Diru-laguntza deialdia lehiaketa-konkurrentziaren bidez ebatziko da. Proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira: bildumaren interes publikoa (40 puntu, gehienez), aurkeztutako programaren koherentzia (20 puntu, gehienez), objektu digitalen kopurua (10 puntu, gehienez), digitalizazioaren eta/edo katalogazioaren kostu unitarioa (10 puntu, gehienez), eskatzaileak proiektua finantzatzeko egin duen ekarpen ekonomikoaren ehunekoa (10 puntu, gehienez) eta, azkenik, programan genero-berdintasuna sustatzen duten elementuak sartzea eta emakumearen ikusgarritasuna (10 puntu, gehienez).

Digitalizazioaren aldeko apustua

Deialdi berri hau abian jartzea bat dator Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kultura-ondarearen munduan hartzen ari diren garrantziarekin, geroz eta nabarmenagoa. Izan ere, mundu digitalak erabateko eraldaketa ahalbidetu du kultura-ondarearen hedapenaren eremuan, bai eta kontserbazioaren eremuan ere.

Era berean, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Lege berriak ondare digitalaren garrantzia aitortzen du, "bai objektu analogiko batetik birtualizatu diren elementuen kasuan, bai objektu digital gisa jaio direnei dagokienez". Horrela, aipatzen du mundu fisikoaren banaketa tradizionala gainditu dela eta espazio kultural digital berri bat sortu dela, "interkonexioak dituen artxiboak gordetzeko tresnak konpartitzeko, datuak erabiltzeko eta zabaltzeko". "Era horretara, aukera ematen digu kultura-edukia eskuragarriago jartzeko eta baita berrerabiltzeko ere, baldin eta bateragarria bada jabetgo intelektualaren eskubideekin eta izaera pertsonaleko datuak babestearekin", jaso du Legeak.

Hala, deialdi berriak bat egiten du digitalizazioaren arloan Euskadiko artxibo, liburutegi eta museoak garatzen ari diren ahaleginarekin, bai eta Euskadiko Liburutegi Digitala sortzeko apustuarekin ere.

Lana eta Justizia

EUSKO JAURLARITZAK BESTE 3,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU AURTEN 6 MILIOI EURO GAINDITUKO DITUEN EUSKADIKO GIZARTE EKONOMIARENTZAKO LAGUNTZEN PROGRAMARA

Gobernu Kontseiluak Lan eta Justiziako sailburuaren Aginduak onartu ditu. Agindu horien bitartez, Gizarte Ekonomian ekiteko, Gizarte Ekonomiako enpresen lurraldeko sustapen planifikaturako, COVID-19ak kaltetutako Gizarte Ekonomiako enpresak indartzeko eta Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpresen laguntza teknikorako deialdia eta haien erregulazioa egiten da.

Deialdi horien artean —guztira 3,2 milioi euro— beste laguntza bat ezarri dutela azpimarratu behar da. Hala, COVID-19aren krisiak galerak eragin dizkien Gizarte Ekonomiako enpresak —programaren kargura laguntza baten onuradun izan zirenak— indartzeko erabiliko dute, finantza-indarra eta -egitura sendotzeko kapital bidezko dirulaguntzak emanez.

Gainera, Gizarte Ekonomiako enpresetan laguntza teknikoari lotutako deialdiaren barruan, COVID-19aren krisiarekin zuzenean lotutako beste bi linea ezarri dituzte, lehiatzeko ahalmena berreskuratzeko eta hobetzeko diagnostiko espezializatuak egiteko; eta kaudimengabeziako kasuetan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin aurretik har daitezkeen neurriak aztertzeke.

Bestalde, Gizarte Ekonomiako enpresak sortzeko aurreko urteetako lineek indarrean jarraitzen dute:

- Eratuko diren sozietateei zuzendutako laguntzak, baita sozietate horiek sortzeko prozesuan sustapena eta aholkularitza ematen duten erakundeei zuzendutakoak ere.
- Lurralde-sustapen planifikatura bideratutako laguntzak. Horien bitartez, enpresak sortzeko helburu bera izanik, epe luzeagoko plan estrategiko batean oinarrituz egiten da.
- Eta zailtasunak dituzten enpresen bideragarritasuna aztertzeke laguntzak, erakundearen jabetza bertako langileen esku geratzeko.

Kudeaketa-tresnak prestatzeko eta ezartzeko laguntzen barruan, honako jarduera hauek ere aurreikusten dira:

- Urteko Kudeaketa Plan bat edo Aginte Koadro Integrala prestatzea eta ezartzea.
- Gizarte Ekonomia ordezkatzen duten erakunde nagusiek aurretiazko beharrezko azterketa ekonomiko eta finantzarioa egitea, erakunde kideei bermea emateko.
- Kooperatiben eta lan-sozietateen kudeaketa komertzialerako aholkularitza espezifikoa.
- Kooperatibetan eta lan-sozietatetan kudeaketako edo zuzendaritzako funtzioak betetzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EUSKADI ACOGERÁ UN CENTRO DE EXCELENCIA EN INVESTIGACIÓN SOBRE TECNOLOGÍAS DE FABRICACIÓN DEL VEHÍCULO ELÉCTRICO Y SOBRE LA FÁBRICA FLEXIBLE 4.0.

- **El Gobierno Vasco colaborará con GESTAMP en la creación de este centro que responde a uno de los principales desafíos de la automoción**
- **El Centro de Excelencia estará ubicado en Amorebieta y compromete una inversión de 17 millones de euros para la que el Gobierno Vasco aprueba una subvención de hasta 8 millones de euros**
- **Impactará en el conjunto del sector aportando mejora competitiva y garantizará la transferencia de la investigación en el proceso de la fabricación**

Euskadi acogerá un Centro de Excelencia en Investigación sobre Vehículo Eléctrico y Fábrica Flexible 4.0.

Será una iniciativa del Grupo GESTAMP, en la que colaborará el Gobierno Vasco por entender que se trata de uno de los desafíos más importantes a los que se enfrenta actualmente el sector de la automoción en Euskadi.

El proyecto compromete una inversión de 17 millones de euros, y el Consejo de Gobierno ha aprobado hoy conceder a GESTAMP una subvención directa por importe de hasta ocho millones de euros, aportación que en ningún caso será superior al 50% del coste total, correspondiendo a GESTAMP aportar el resto de la financiación hasta su completa puesta en marcha.

Impacto y mejora competitiva para el conjunto del sector

El convenio de colaboración que hoy se ha aprobado, permitirá crear un espacio de investigación industrial que traerá un cambio de paradigma en la fabricación avanzada mediante el diseño, desarrollo y validación de un nuevo concepto revolucionario de "fábrica", completamente flexible y conectada.

Asimismo, el centro investigará sobre las tendencias relacionadas con los cambios estructurales en los automóviles ante la transición hacia el vehículo eléctrico. El centro investigará nuevos productos y componentes estructurales del nuevo vehículo eléctrico, que reduzcan el peso ante la necesidad de reducir emisiones de CO2 para mitigar los efectos del cambio climático. También se desarrollarán nuevos productos diseñados específicamente para el Tecnologías de Fabricación de vehículo eléctrico.

El futuro laboratorio de investigación industrial perseguirá avances que permitan aumentar la competitividad del sector de la automoción en Euskadi. Además, contará con la aportación del ecosistema de empresas proveedoras que

configuran la cadena de valor del sector vasco, así como con la participación de los centros tecnológicos radicados en la CAE.

El Gobierno Vasco considera de interés la participación en el proyecto porque el futuro laboratorio respondería tanto a las necesidades de los fabricantes de automóviles y de sus principales proveedores en materia de fabricación flexible, así como a las tendencias globales relacionadas con el vehículo eléctrico.

Compromiso de GESTAMP con la automoción de Euskadi

El grupo GESTAMP es uno de los principales proveedores mundiales de piezas estampadas metálicas para automoción. Se trata de un grupo multinacional especializado en el diseño, desarrollo y fabricación de componentes metálicos para el automóvil y tiene en Euskadi un entorno óptimo para el desarrollo de su actividad de I+D+i. Por un lado, el sector de la automoción es uno de los más competitivos e innovadores en Euskadi (en 2018, las ventas de las empresas del sector radicadas en el País Vasco representaban el 25% del PIB de la comunidad autónoma) y por otro, desde las instituciones vascas se ha hecho una apuesta por el I+D+i.

GESTAMP participa de forma activa en el Clúster de Automoción del País Vasco (ACICAE), que tiene como misión mejorar la competitividad de las empresas vascas del sector y dinamizarlo mediante la cooperación y, poder así, dar respuestas conjuntas a los retos.

Para ello, GESTAMP desarrollará los siguientes trabajos:

- Definición de necesidades y desafíos tecnológicos y sectoriales. Se identificarán las tendencias tecnológicas y sectoriales más importantes para el sector de la automoción en el País Vasco y a nivel internacional. El análisis de estas tendencias debe resultar en la definición de los desafíos de mayor grado para el sector.
